

# HITZAURREA

Ale bat bestearen atzetik bultzaka etortzen da. Horixe da aldizkari honen arduradugunoi iruditzen zaiguna, behintzat. LEZO 14 kalera atera eta berehala hamabosgarrena inprimategiko bidean zen.

Denbora eta gaitasunaren mugak zorrotzak dira eta horregatik hamaika kontu interesgarri aldizkari honetatik kanpo gelditu da. Espero izan dezagun aurrerantzean hobeto erantzuteko moduak izatea.

Tira, baina hemen duzue berriro ere LEZO dagokion garaian eta zuen gozamenarako. Aldizkari hau, aurrekoak bezalaxe, bete beterik dator. Bertan bada hamaika kontu interesgarri. San Juan Bataiatzailearen elizan kalefakzioa jartzeko egindako lanak direla eta herritar ezagunez osatutako talde bat lanek izan dituzten ondorioen inguruan berri emanez dator, eta honekin batera Parrokiako Obra Batzordeak egindako adierazpena. Hori ez da dena, ordea, Italiatik ezezagun batek bidalitako Trapujale herri antzerkia misterioitsua ere hementxe duzue oso osorik. Eta beste hamaika kontu...

Bero-bero eta leporaino betea dator. Bertan gustokorik izango duzelakoan gaude. Ondo izan eta Santakruzak ondo baino hobeto pasa.



## PROLOGO

¡Apenas hay tiempo para respirar! O eso es lo que nos parece a quienes confeccionamos esta revista. al poco tiempo de que LEZO 14 conociera la luz el siguiente número ya estaba camino de la imprenta.

Pero el calendario no perdona y ello hace que muchas noticias interesantes se queden en el tintero. Esperemos que esto pueda cambiar para mejor.

Este nuevo número de LEZO acude fielmente a su cita, una vez más. Y una vez más viene repleto de noticias interesantes. Uno de los temas es el de las obras que se han realizado en la Iglesia de San Juan Bautista para colocar la calefacción. Un conocido grupo de Lezotarras informa sobre las consecuencias que ha tenido el modo en que se han hecho las reformas y la Junta de Obras manifiesta su posición al respecto. Junto a esto también encontrareis la misteriosa *Trapujale herri antzerkia* enviada por un anónimo desde Italia. Y otras muchas historias.

Esperamos que os guste y que asimismo disfruteis plenamente de estas fiestas

Lezoko Elkarte Koordinakundea.

**Lezoko Elkarte Koordinakundea**